

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren 1ean hartutako erabakiaren laburpena: Ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntzak emateko deialdia eta oinarriak onestea 2026. urterako**

BDNS (Identif.): 900561.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/900561>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>, baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

#### **Lehena. Onuradunak**

Merkataritza-jarduera bat egiten duten enpresa pribatuak, edozein forma juridikoa dutela ere, egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizen badute, eta/edo diruz lagundu daitezkeen jarduerak zuzenean Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatutako zentzoren batean egiten badituzte. Horrez gain, eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik balio osoz eratuta egotea, eskabidea tramitatzeko prozesu osoan (aurkeztean, ebaztean, obligazioa onartzean eta ordaintzean) EJZn izena emanda egon behar dute, egunean izan behar dituzte betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak, eta, azkenik, enpresa txiki edo ertaina izateko eskakizunak eskabidea aurkezten den unean, hots: 250 enplegatutik behera izatea, urteko fakturazioa 50 milioi euro baino gutxiagokoa izatea eta balantze orokorra 43 milioi eurotik beherakoa izatea.

Enpresa horiek ezingo dute aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresek loturarik izan, edo halakoen partaidetza nagusirik izan. Berariaz baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar.

#### **Bigarrena. Xedea**

Vitoria-Gasteizko udalerrian dauden enpresek ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko konkurrentzia-erregimeneko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Ekonomia zirkulartzat jotzen da produktuen, materialen, eta baliabideen balioak ekonomian ahalik eta luzeen mantentzen dituen eta ahalik eta hondakin gutxien sortzen dituen ekonomia.

Zehazki, diruz lagundu ahal izango dira 3. oinarrian jasotako gastuak, baldin eta bat badatoz lau eremutan banatutako jardueretako batekin (1. Diseinu eta ekoizpen zirkularrean laguntzen duten jarduerak; 2. Erabilera zirkularrean laguntzen duten jarduerak; 3. Balio zirkularra berreskuratzen laguntzen duten jarduerak; 4. Laguntza Zirkularreko kategoriatan (taldeko jarduerak), Europako Batzorderako lanketa eta Berrikuntzarako Zuzendaritza Nagusia egindako ekonomia zirkularren kategorizazio-txostenetik ateratakoak, eta ordainketa behar bezala justifikatuta badago 2026ko urriaren 16a baino lehen, egun hori barne.

**Hirugarrena. Oinarriak**

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren 1ean onetsi zituen ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntzak emateko deialdiaren oinarriak 2026. urterako.

Deialdia zein oinarriak Udalaren webgunean daude, ikusi nahi izanez gero ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)), eta baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

**Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdi honek 100.000,00 euroko zuzkidura du, 2026rako onetsitako udal aurrekontuan erabilgarri dagoen 0821.4331.471.36 partidaren kontura (Ekonomia zirkularreko proiektuetarako laguntzak).

Enpresa bakoitzeko dossier bakarra tramitatuko da, alorra kontuan hartu gabe, eta dirulaguntza jasotzeko alegatutako gastuen ehuneko 65ekoa izango da dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, 10.000,00 euroko mugarekin. Aurkezten diren proiektuek gutxienez diruz lagun daitekeen 3.000,00 euroko inbertsioa izan beharko dute, 15. oinarriarekin (balioespen-irizpideak) bat etorritik, konponketaren eta berregokitzearen arloko negozioen kasuan izan ezik, kasu horretan muga 1.500,00 eurokoa izango baita. Aurreko deialdietan laguntza bera jasoa izan ahalko du eskabidea egiten duen enpresak, proiektu berbererako, baldin eta lehendik emandako laguntzaren zenbatekoak ez badu 50.000,00 euroko muga gainditzen.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunetik 2026ko ekainaren 15era arte, egun hori barne.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 1a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta  
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*  
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ